

**30/2024 TXOSTENA, URRIAREN 23KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA
SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araberan (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 17. artikulua honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari:

- a) Goi-mailako hezkuntzari loturiko ahalmenak, Autonomia Estatutuaren ondoriozkoak.



- b) Zientzia-politika.
- c) Ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzea.
- c bis) Oinarri zientifikoko ekintzailatza.
- d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana bultzatu eta koordinatzea.
- e) Berrikuntza-funtsa kudeatzea.
- f) Ikerketa kooperatiboko zentroak.
- g) Bikaintasunezko ikerketako EAeko zentroak.
- h) Berrikuntza, enpresen sektoreko berrikuntza izan ezik, 10.1b) artikuluan aipatua.
- i) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

Artikulu horren bigarren apartatuan ezartzen denez, sail honi atxikita daude: «Unibasq–Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia» zuzenbide pribatuko ente publikoa, «Musikene–Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia», eta «Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua», apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, 2024ko urriaren 31 baino lehen, onar ditzan. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Horretarako, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 17. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien egitekoak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 18an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_5087/24_13), agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua.
- Proiektua alde zuzenetik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 25 artikulua, 2 xedapen gehigarri, xedapen iragankor 1, xedapen indargabetzaile 1 eta azken xedapen 1.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, 116/2016 Dekretuak 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa); izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio, partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Orain, kontratazio publikoari buruzko proiektuaren artikulua aipatuko ditugu:

«4. artikulua.– Sailburua.

[...]

– Halaber, hauek ere ... sailburuaren ardura dira:

[...]

c) Sailaren erakunde edo agintarien aurka aurkeztutako errekursoak ebaztea, non eta beste organo baten eskumena ez diren.

d) Sailaren kontratazio-organo gisa jardutea lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 5.000.000 eurotik gorakoa duten kontratuetan.

e) Halaber, eta baldintza beretan, berari dagokio bitarteko propio pertsonifikatuei mandatuak egiteko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-araubidean aurreikusitako eran.



[...]

j) Saileko 5.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseilua-ren eskumenak.

6. artikulua.– Sailburuordetzak.

Sailburuordetzan garatutako jardueri eta sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzei eta gainerako administrazio-organo eta -unitateei dagokienez, egiteko hauek dagozkie Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko sailburuordeei:

[...]

j) Errekurtsoak ebaztea, indarrean dagoen legerian agindutako kasuetan.

[...]

7. artikulua.– Zuzendaritzak.

[...] Egiteko hauek izango dituzte Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko zuzendariek:

[...]

e) Beren jardun-arloko kontratu txikiak behar bezala gauzatzeko gastua kontratatu, baimendu eta onartzea, eta kontrolatzea, hargatik eragotzi gabe dekretu honetan kontratu horiei buruz egiten diren aipamenak, batez ere bigarren xedapen gehigarrian egiten direnak.

8. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

[...]

1.- Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari:

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari eskudantzia hauek dagozkio:

[...]

f) Kontratazio-espeditueak eta bitarteko propio pertsonifikatuei eta zerbitzu teknikoei egin beharreko mandatuak izapidetzea.

[...]

z) Jardun-arloaren barneko espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, baimen hori beste organo baten eskumena ez bada. Halaber, 5.000.000 eurora arteko transferentzia-gastuak baimenduko ditu.

2.– Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da, 5.000.000 euroko eta hortik beherako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan; halaber, eskuduna izango da, baldintza beretan, bitarteko propio pertsonifikatuei mandatuak egiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidean aurreikusitakoari jarraituz.

[...]

24. artikulua.- Zientzia Politikarako Zuzendaritza.

Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari:



[...]

o) Abenduaren 26ko 278/2000 Dekretuak aldatutako apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuan Zientzia, Unibertsitate eta Unibertsitate Sailari ezarritako egitekoak garatuko ditu. Dekretu horietan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sare sortu eta arautu zen, Euskadiko teknologia ikerketako entitateekiko lankidetzeta eta koordinazio harremanak ezarriz, eta horien ezaugarri eta egitekoak zehaztuz. Halaber, Bitariko Transferentzia Batzordeak 2008ko abenduaren 11n hartutako Akordioa onesten duenak eta ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeari buruzkoa den urtarrilaren 23ko 2/2009 Dekretuan ezarritako egitekoak ere garatuko ditu, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriari dagokionez.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Bitarteko propio pertsonifikatuei egindako mandatuak.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko kontratazio-organoek eskumena izango dute, halaber, dekretu honen 4. artikuluan eta 8.2 artikuluan ezarritako baldintza berberetan, bitarteko propio pertsonifikatuei obrak egikaritzeko eta zerbitzuak emateko egindako mandatuak onartzeko, indarrean dauden araudian aurreikusitako baldintzetan».

Txosten honen xedea ez bada ere, Batzorde honek hitzarmenak sinatzeko orduan arreta berezia jartzea gomendatzen du, kontraprestazioetan kostu bidez egiten diren kontratuak izan ez daitezen.

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua arabera ezartzen denez, “*Administrazio orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...], salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]*”.

Ondorioz, ahalmen hori erabiliz, dekretu-proiektu horrek zenbait aurreikuspen jasotzen ditu kontratazio-organoei dagokienez. Hala, 4.d) artikulua sailburuari esleitzen dizkio kontratazio-organoari dagozkion eskumenak 5.000.000 eurotik gorako lizitaziorako oinarrizko aurrekontua duten kontratuetan.

Halaber, 8.2. artikulua dio Zerbitzuen zuzendariari dagokiola kontratazio-organo gisa jardutea lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 5.000.000 eurora artekoa duten kontratuetan.

Beraz, Saileko gastuak baimentzeko eskumenari dagokionez, ildo beretik doaz, eta muga kuantitatibo berberekin, 4.j) artikulua –sailburuak du eskumena– eta 8.1.1.z) artikulua –Zerbitzuen zuzendariak du eskumena–.

Era berean, aurretik aipatu diren proiektuaren 4.2.e) eta 8.2.b) artikuluetan, kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak esleitzeaz gain, bitarteko propioentzako mandatuak egiteko



eskumena ere jasotzen da, muga kuantitatibo berberekin –Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan dago araututa figura hori–.

Bitarteko propio pertsonifikatuei egin beharreko mandatuei buruzko eskumenari dagokionez, 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako baldintzetan egiteko berariazko aurreikuspena sartzea gomendatzen da (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duena).

7. artikuluan, zuzendariei esleitzen zaie beren jardun-arloko kontratu txikiak behar bezala gauzatzeko gastua kontratatu, baimendu eta onartzea, eta kontrolatzea, hargatik eragotzi gabe dekretu honetan kontratu horiei buruz egiten diren aipamenak, batez ere bigarren xedapen gehigarrian egiten direnak.

Xedapen gehigarri horretan ezartzen denez, Hezkuntza Saileko kontratazio-organoek eskumena izango dute, halaber, dekretu honen 4. artikuluan eta 8.2 artikuluan ezarritako baldintza berberetan, bitarteko propio pertsonifikatuei obrak egikaritzeko eta zerbitzuak emateko egindako mandatuak onartzeko, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

Horri dagokionez, gogoan izan behar dugu kontratu txikiak salbuespen direla publizitatearen eta lehia askearen araubide orokorrean, eta, beraz, horien erabilera mugatu egin behar dela, prozedura irekiaren eta ireki sinplifikatuaren bidez izapidetutako kontratu handien eta esparru-akordioaren mesedetan. Alde horretatik, komeni da kontratazio-organo guztiak alde aurretik planifikatzeko eta koordinatzeko obligazioa betetzea, sortzen diren beharrak kudeatzeko orduan, batez ere ekipamenduen, azpiegituren eta informazioaren teknologien arloan, ahal den neurrian alferrikako zatikatzeak edo lege-iruzurrak saihesteko.

Euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-irizpideak txertatzeko eskumena dela eta, 6.h), 7.f) eta 8.1.1.m) artikuluei dagokienez, berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartu zuen eta egun indarrean dagoen erabakian adierazitakoaren arabera garatu behar dela eskumen hori (Erabakia, 2023ko ekainaren 6koa, Gobernu Kontseiluarena, zeinaren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak). Hala ere, gogorarazi behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen artean.

Era berean, 24. artikuluan o) letran, Sailak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari lotuta dituen eginkizunak jorratzen dira. Txosten honen gaia ez bada ere aipatzen dituen dekretuak aztertzea, komenigarria ikusten da letra honetan aipamen bat egitea azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriarekin duen loturari buruz; izan ere, lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak.

Aipatutako berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, *«lege honen 118. artikuluan aurreikusitako mugaren salbuespen gisa, kontratu txikitzat hartuko dira 50.000 euro edo gutxiagoko balio zenbatetsia duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuak»*. Beraz, 9/2017 Legearen 118. artikuluan mugaren salbuespen bat da, ez gehigarri bat; beraz, erosketa guztien zenbatekoa ezingo da, hala badagokio, 50.000 eurotik gorakoa izan.

Aipatutako xedapena oinarritzkoa da, eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako eragile publikoek egindako kontratuei aplikatu beharreko araubidea ezartzen du; horregatik, bereziki kontratu txikiei eragiten die.

Kontratazioaren alorrean aurkez daitezkeen administrazio-errekurtsoei dagokienez, modu orokorrean jasota daude. 4.c) artikulua saileko sailburuari esleitzen dio saileko organismo edo agintariak emandako ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsoak ebaztea, non eta beste organo baten eskumena ez diren. Era berean, 6.j) artikuluan, sailburuordetzei buruzkoan, esleitzen zaie *«errekurtsoak ebaztea indarreko araudian aurreikusitako kasuetan»*, baina batzorde honek beste era batera idaztea proposatzen du, zehatzagoa izan dadin eta adierazi dadin sailburuordetzaren mende dauden zuzendaritzetako titularrek emandako ebazpenen aurka jarritako errekurtsoak direla.

Azkenik, gogoan izan behar da 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua jasotzen duela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek informatu egin behar duela kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez: *«Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta»*.

Alde horretatik, 2030erako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa ezartzeko bitarteko gisa, martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidea onartu zen, eta kontratazio publikoko prozeduraren une bakoitzean ingurumen-klausula egokienak zein diren jasotzen du.



Halaber, 1/2024 Jarraibidea onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eta jarraibideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Administrazio Institutuzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Hori guztia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. artikulua xedatutakoa aplikatzen laguntzeko, eta kontratazio publikoaren araubideak ezarritakoa beti errespetatzeko.

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta gomendioen arabera egokitzen bada.